205

bibrazioen kontrako**isolamendu (4)**

- es** aislamiento antivibrátil
fr isolation antivibratile
en vibration isolation; vibration insulation

206

bigarren esku-hartzeko talde (4)

Autobabeseko giza taldea. Larrialdiak hala eskatzen duenean, larrialdi-egoera kontrolatzeko lanetan hastea izaten da haren egitekoa, eraikineko baliabiderik eraginkorrenak erabiliz egoera hori kontrolatzen laguntzeko eta, hala eskatzen zaionean, Larrialdietako Zerbitzu Publikoei lagunduz.

- es** equipo de segunda intervención
fr équipe de seconde intervention
en second intervention team

biltoki

Ik. elkartzte-puntu

207

buru-babes (4)

- es** protector de cabeza
fr protecteur de tête
en head protector

208

debeku-seinale (4)

Arriskuren bat sor dezakeen ekintzaren edo portaeraren bat ez dela egin behar esaten duen seinalea.

- es** señal de prohibición
fr signal d'interdiction
en prohibition sign; ban sign

209

debekupeko eremu (4)

Esposizio bakar batean urte guztiko dosi-mugaren gainetik dagoen kutsadura- edo irradiazio-maila hartzeko arriskua duen eremua, jendearentzat ez sartzeko markatuta dagoena.

- es** zona de acceso prohibido
fr zone non autorisée; zone d'accès interdit
en closed area

210

disjuntore (4)

Baldintza anormaletan -hala nola korrontearen intentsitateak balio jakin bat gaingiditzen duenean- zirkuitu elektriko bat automatikoki eteten duen gailua.

- es** disyuntor; disyuntor diferencial
fr disjoncteur; disjoncteur de circuit; disjoncteur de surcharge; disjoncteur de sécurité
en circuit-breaker; overload circuit breaker; limit switch

211

dosimetro (4)

Langile batek egunean zehar jasaten duen agente batekiko esposizioa (zarata-maila, bibrazioak, erradiazioa, kutsadura kimikoa...) neurtzeko erabiltzen den gailua.

- es** dosímetro
fr dosimètre
en dosimeter

212

ebakuazio (4)

Eraikin edo instalazio baten barruan dauden pertsonak, haien bizitza arriskuan jar dezakeen istripuren bat gertatu delako, beste leku seguruago batera ateraraztea.

- es** evacuación
fr évacuation
en evacuation

213

ebakuazio-agindu (4)

- es** orden de evacuación
fr ordre d'évacuation
en evacuation order

214

ebakuazio-argiak (4)

Segurtasuneko argien barruan, ebakuazio-bideak eta -baliabideak non dauden ikusteko eta erabili ahal izateko jartzen diren argiak.

es alumbrado de evacuación

fr éclairage d'évacuation

en evacuation lighting

215

ebakuazio-bide (4)

es vía de evacuación; vía de salida

fr chemin d'évacuation; voie d'évacuation

en escape way; evacuation way

216

ebakuazio-denbora (4)

Eraikin bateko edo eraikin horren zona bateko jende guztiak kanpoko irteera batera iristeko behar duen denbora, ebakuazio-seinalea ematen denetik kontatzen hasita neurtzen dena.

es tiempo de evacuación

fr durée d'évacuation

en evacuation time

217

ebakuazio-plan (4)

Pertsonen bizia arriskuan jar dezakeen larrialdi baten aurrean (adibidez, sute baten edo presa bat hausteko arriskuaren aurrean), arriskupean dagoen jendea arriskurik gabeko leku batera eramateko hartu behar diren neurri guztien definizio sistematiko eta planifikatua.

es plan de evacuación

fr plan d'évacuation du personnel

en evacuation plan; employee evacuation plan

218

ebakuazioko bide (4)

es recorrido de evacuación

fr parcours d'évacuation

en escape route; evacuation route

219

egonaldi mugatuko eremu (4)

es zona de permanencia limitada

fr zone à séjour limité

en limited stay area

220

elektrizitate estatikoaren ezabagailu (4)

Eremu edo inguru bateko karga elektrostatikoa neutralizatzen duen gailua.

es eliminador de electricidad estática; neutralizador de electricidad estática; eliminador de cargas electrostáticas

fr éliminateur d'électricité statique

en electrostatic charge eliminator

221

elkartze-puntu (4)

Sin. biltoki (3)

Ebakuazio bat egitean, jendea zenbatzeko eta ebakuatzeke inor ez dela falta egiaztatzeko jartzen den leku seinalatua.

es punto de reunión

fr point de rencontre

en meeting point

222

enpresako mediku (4)

es médico de empresa

fr médecin du travail; médecin d'entreprise

en occupational physician

223

enpresako prebentzio-zerbitzu propio (4)

Sin. prebentzio-zerbitzu propio (4)

es servicio de prevención propio

fr service de prévention propre

en own prevention service

224

enpresaz kanpoko prebentio-zerbitzu (4)

- es** servicio de prevención ajeno
fr service de prévention extérieur
en external prevention service

225

eremu arriskutsu (4)

Laneko makina edo ekipamendu baten barruan edo inguruan kokatutako eremu mugatua, eremu horretan sartzen den pertsonaren segurtasunerako edo osasunerako arriskua dagoela adierazten duena.

- es** zona peligrosa
fr zone dangereuse
en hazardous area

226

ergonomia (4)

Diziplina anitzeko zientzia-eremua, laneko baliabideak eta baldintzak langilearen premietara eta ezaugarri fisiologiko eta psikologikoetara egokitze helburua duena.

- es** ergonomía
fr ergonomie
en ergonomics

227

esku-babes (4)

- es** protector de manos
fr protecteur de mains
en hand protector

228

esku-hartze buru (4)

Autobabeseko taldeen arduraduna. Ardura hauek ditu: larrialdi bat balioestea eta sailkatzea, larrialdia gertatzen den gunean esku hartuko duten taldeak zuzentzea eta koordinatzea, eta larrialdietako buruari larrialdiaren eboluzioaren berri ematea.

- es** jefe de intervención
fr responsable d'intervention
en intervention chief officer

229

eskuzko itzalgailu (4)

Eskuz eraman eta erabil daitekeen itzalgailu autonomoa.

- es** extintor portátil
fr extincteur portatif
en portable fire extinguisher

230

eskuzorro (4)

- es** manopla
fr mitaine
en mitten

231

esposizio profesionalaren muga-balio (4)

- es** valor límite de exposición profesional
fr valeur limite dans les expositions professionnelles
en occupational exposure limit

232

etengailu diferentzial (4)

Korronte diferentziala aurrez erabakitako balio jakin batera iristen denean zirkuitua automatikoki irekitzen duen gailu elektromekanikoa.

- es** interruptor diferencial
fr disjoncteur de fuite à la terre; disjoncteur différentiel
en residual current device; residual current circuit breaker; ground fault circuit-breaker

233

fitxa toxikologiko (4)

- es** ficha toxicológica
fr fiche toxicologique
en toxicological sheet

234

frenatzeko eta gelditzeko gailu (4)

es dispositivo de frenado y parada**fr** dispositif de freinage et d'arrêt**en** braking and stopping device

235

gehieneko esposizio onargarri

(4)

Pertsona batek, baldintza fisiko normaletan, jasan dezakeen esposizio profesionalik handiena, pertsonaren bizitza guztirako eragin kaltegarri nabarmenak izatera iristen ez dena.

es exposición máxima permisible; límite de exposición permisible**fr** exposition maximale admissible**en** maximum allowable exposure; maximal accepted exposure

236

gizaki hilaren gailu (4)

Makina batek funtzionatu ahal izateko, norbait aginteak erabiltzen aritzea, hau da, aginteak beti jarrera jakin batean egotea eskatzen duen gailua; aginte horiek askatuz gero, makina automatikoki geratzen da.

es dispositivo de hombre muerto**fr** dispositif d'homme mort**en** dead man's handle**gurpil gaineko itzalgailu**

lk. itzalgailu mugigarri

237

hauts itzaltzaile (4)

Sua itzaltzeko erabiltzen den hautsaren antzeko substantzia. Normalean, ez da toxikoa izaten, ez eta korrosiboa edo urragarria ere, eta ez da elektrizitatearen eroalea izaten; pertsonen gainera botatzeko ere arriskurik gabe erabil daiteke.

es polvo extintor**fr** poudre sèche; poudre extinctrice**en** dry powder; extinguishing powder

238

hauts kimikozko itzalgailu (4)

Substantzia itzaltzaile gisa sodio bikarbonatoa eta fosfato monoamonikoa erabiltzen dituen itzalgailua. A, B, eta C klaseko suak itzaltzeko balio du.

es extintor de polvo químico**fr** extincteur à poudre chimique; extincteur à poudre sèche**en** dry-chemical fire extinguisher; dry-chemical extinguisher

239

hidrante (4)

Herri barruko suteen kontrako instalazio batean, lur azpitik datorren presio handiko ur-sarearekin konektatzeko jartzen den elementua. Harguneak kalean jartzen dira, batzuetan lur azpian (sute-ahokak), eta beste batzuetan gutxi gorabehera metro bateko altuerako zutabe baten muturrean (sute-zutabeak).

es hidrante; hidrante de incendios**fr** hydrant**en** hydrant

240

higiene analitiko (4)

Laneko giroan dauden kutsatzaileen azterketa eta neurketa kualitatiboa eta kuantitatiboa egiten duen higienearen adarra. Lan-eremuko higienearekin eta higiene teorikoarekin batera lan egiten du.

es higiene analítica

241

higiene industrial (4)

Sin. industria-higiene (4)

Ardura hau duen diziplina: langileen osasunean eragina izan dezaketen faktoreei eta haien konfort-maila jaitzarazi edo lan-eraginkortasuna gutxitu dezaketenei aurrea hartzea, antzematea, haiek ebaluatzea eta kontrolatzea.

- es** higiene industrial
fr hygiène du travail; hygiène industrielle
en occupational hygiene; industrial hygiene

242

higiene operatibo (4)

Higiene industrialaren adarra; kutsatzaileen kontzentrazioa osasunarentzat kaltegarriak ez diren balioetaraino jaisteko ezarri behar diren kontrol-metodoak hautatu eta ezartzeaz arduratzen da.

- es** higiene operativa
fr hygiène opérationnelle
en operative hygiene

243

higiene teoriko (4)

Kutsatzaileek gizakiarengan duten eragina aztertzeaz arduratzen den higiene industrialaren adarra; dosien eta erantzunen arteko mekanismoak analizatzea eta mugako kontzentrazio-mailei buruzko estandarrak ezartzea du helburu.

- es** higiene teórica
fr hygiène théorique
en theoretical hygiene

244

hutsegite-zuhaitz (4)

Hutsegite baten analisi deduktiboa egin ahal izateko zuhaitz-egiturako diagrama, hutsegite horren zergatiak eta ondorio posibleak modu hierarkikoan azalduz egiten dena.

- es** árbol de causas; árbol de fallos
fr arbre de défaillance; arbre des fautes
en fault tree; failure tree; causal tree

industria-higiene

Ik. higiene industrial

inertzia-mugimendua**gerarazteko gailu**

Ik. inertzia-mugimenduaren gailu

245

inertzia-mugimenduaren gailu (4)

Sin. inertzia-mugimendua gerarazteko gailu (3)

Argindarra moztu ondoren inertziak mugitzen jarraitzen duten elementu mekanikoetara iristen ez uzteko diseinatutako gailua.

- es** dispositivo de movimiento residual; dispositivo de movimiento de inercia
fr dispositif de mouvement résiduel
en residual movement device

246

isolamendu akustiko (4)

- es** aislamiento acústico
fr isolation acoustique; isolation phonique; isolation sonore
en acoustic insulation

247

isolamendu elektriko (4)

- es** aislamiento eléctrico
fr isolation électrique
en electrical insulation

248

isolamendu termiko (4)

- es** aislamiento térmico
fr isolation thermique
en thermal insulation

249

istripu-tasa (4)

Denbora-epe baten barruan eta baldintza jakin batzuetan gertatutako istripuen kopurua jasotzen duen estatistika.

- es** índice de accidentalidad; índice de accidentes
fr taux d'accidents
en accident rate

250

istripuaren kausa (4)**es** causa de accidente**fr** cause d'accident**en** accident cause

251

istripuen ikerketa (4)

Istripu bat gertatu ondoren, istripuaren kausa posibleak eta haren inguruko beste zenbait alderdi argitzeko egiten den azterketa, nola gertatu den jakin eta hurrengorako aurrea hartu ahal izatea helburu duena.

es investigación de accidentes**fr** investigation des accidents**en** accident investigation

252

itzalgailu mugigarri (4)

Sin. gurpil gaineko itzalgailu (3)

Kargatuta, guztira, 20 kg-tik gorako pisua duen itzalgailua, leku batetik bestera eramateko gurpil batzuk izaten dituena.

es extintor móvil; extintor sobre ruedas**fr** extincteur mobile**en** mobile extinguisher

253

itzalgailuaren eraginkortasun (4)

Eskuzko itzalgailuetan, itzalgailu horrek sua itzaltzeko duen gaitasuna adierazteko jartzen den magnitudea.

es eficacia de un extintor; eficacia extintora**fr** efficacité d'extinction**en** extinguishing effectiveness**izu-barra**

Ik. izuaren kontrako barra

254

izuaren kontrako barra (4)

Sin. izu-barra (4)

Larrialdietako atearen erdialdean jartzen den zeharkako barra, bultzatze hutsarekin atea irekitzen duena.

es barra antipánico**fr** barre antipanique**en** panic bar; antipanic-bar

255

kanpoko larrialdietako plan (4)

Istripu larriei aurrea hartzeko edo, halakorik gertatuz gero, haien ondorioak arintzeko sortzen den marko organiko eta funtzionala; babes-neurri egokienak, behar diren giza baliabide eta baliabide materialak eta esku hartu behar duten erakundeen koordinazio-eskema ezartzen ditu.

es plan de emergencia exterior**fr** plan d'urgence externe**en** external emergency plan

256

karbono dioxidozko itzalgailu (4)

Substantzia itzaltzaile gisa karbono dioxidoa (CO₂) erabiltzen duen itzalgailua. Elur karbonikoa deitzen den apar-forman ateratzen da, eta E motako sua itzaltzeko balio du.

es extintor de anhídrido carbónico**fr** extincteur à dioxyde de carbone;

extincteur à anhydride carbonique

en carbon dioxide extinguisher**katigatze-babesgarri**

Ik. aginteari atxikitako babesgarri

257

ke-detekttagailu (4)**es** detector de humos**fr** détecteur de fumées**en** smoke detector

258

kearen kontrako maskara (4)

- es** careta antihumo
fr masque anti-fumée
en smoke mask

259

konfort akustiko (4)

- es** confort acústico; confort auditivo
fr confort acoustique
en acoustic comfort

konfort postural

Ik. postura-konfort

260

konfort termiko (4)

Langilearen eta laneo inguruaren arteko truke termikoa baldintzatzen duten faktore guztien arteko konbinaziorik onena bilatuz (airearen eta hormen temperatura, konbekzioa, egoera higrometrikoa) lortu nahi den emaitza.

- es** confort térmico
fr confort thermique
en thermal comfort; feeling of comfort

261

kontaktu elektrikoaren kontrako babes-sistema (4)

- es** sistema de protección contra contactos eléctricos
en electric shock protection system

262

kontrol-zerrenda (4)

Prebentzioaren alorrean bete beharreko praktika guztiak errazago eta sistematikoago egiaztatzeko erabiltzen den aurrez prestatutako galdera- edo jarraibide-saila.

- es** lista de chequeo; lista de comprobación
fr liste de contrôle
en check list

263

kontrolpeko eremu (4)

Erradiazio ionizatzaileen iturri bat egoteagatik mugatuta dagoen eremua; han lan egin behar dutenek erradiazio-dosiak hartuko dituztenez, erradiazioen kontrako babesari buruzko teknika eta erregelamenduetan aditua den eta gai horiei buruzko neurriak aplikatzeko ardura duen teknikari batek kontrolaturik eta gainbegiraturik dago.

- es** zona controlada
fr zone contrôlée
en controlled area

264

korrante-etengailu automatiko (4)

Etengailu-mota: zerbitzuko korrante-intentsitateak berriro ezarri, mantendu edo eteten ditu, edota, aurrez ezarritako baldintza jakinetan, normala baino altuagoak diren korrante-intentsitateak (adibidez, zirkuitulaburretatik sortutakoak) automatikoki eteten ditu.

- es** dispositivo automático de corte de tensión; dispositivo automático de corte de corriente
fr dispositif de coupure automatique de courant
en automatic power disconnection device

kutxatila-hidrante

Ik. sute-aho

265

lan-arriskuen prebentzio (4)

- es** prevención de riesgos laborales
fr prévention des risques de travail
en occupational risk prevention

lan-arriskuen prebentzio-plan

Ik. prebentzio-plan

266

lan-eremuaren argiztapen (4)

- es** iluminación del lugar de trabajo
fr éclairage de la zone de travail
en work area illumination; work area lighting

267

lan-eremuko higiene (4)

Zuzenean laneko giroaren azterketa higienikoa egiteaz arduratzen den higie industrialaren adarra: lanpostuen analisia, kutsatzaileen detekzioa eta esposizio-denbora, zuzeneko neurketak eta lagin-hartzea, balio estandarrekiko konparazioa eta higie-teknika orokorrak.

- es** higiene de campo
fr hygiène sur le terrain
en field hygiene

268

lan-osasun (4)

Lan-inguruari dagokionez, langilearen osasuna eta ongizatea bermatzeko pentsatu eta aplikatzen diren programen eta jardueren guztien multzoa.

- es** salud laboral; salud ocupacional
fr santé occupationnelle; santé au travail
en occupational health

269

laneko arriskuen ebaluazio (4)

Prebentzioko prozedura orenen hasierako etapa, hau da, enpresan aurki daitezkeen arriskuak identifikatzea eta sailkatzea, prebentzioko neurriak hartzeko asmoz.

- es** evaluación de riesgos laborales
fr évaluation des risques professionnels
en occupational risk assessment; evaluation of occupational risks; occupational risk evaluation

270

laneko ekipamendu (4)

Lanean eta lanerako erabiltzen den edozein makina, aparatu, tresna edo instalazioa.

- es** equipo de trabajo
fr équipement de travail
en work equipment

271

laneko istripu eta laneko gaixotasun profesionalen mutua (4)

Irabazi asmorik gabeko enpresa-elkarte, laneko istripu eta gaixotasunen kontingentziak kudeatzen laguntzea beste helbururik gabe sortua.

- es** mutua de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales
fr assurance accidents du travail -maladies professionnelles; mutuelle patronale
en mutual benefit society

272

laneko segurtasun (4)

- es** seguridad en el trabajo
fr sécurité industrielle; sécurité du travail
en occupational safety

273

langarreztagailu automatiko (4)

Ura botatzeko proiektatutako elementua. Temperatura jakin batekin martxan jartzen den gailu termosentikorra izaten du, eta, behar bezala instalatuta, sute bat kontrolatzeko edo itzaltzeko erabil liteke.

- es** rociador automático de agua
fr aspersion
en sprinkler

274

langarreztagailu automatikoen instalazio (4)

- es** instalación de rociadores automáticos de agua
fr installation d'extincteurs automatiques à eau
en automatic sprinkler installation

275

lantoki (4)

Langile batek bere lana egiteko duen ingurua.

- es** centro de trabajo
fr centre de travail; lieu de travail
en work centre; workplace

276

larrialdi (4)

Berehala esku hartzea eskatzen duen arrisku edo hondamendizko egoera.

- es** emergencia
fr urgence
en emergency

larrialdi-buru

Ik. larrialdietako buru

277

larrialdi-hasiera (4)

Larrialdi-egoera berezia, intzidentea gertatzen den lekuan bertan suaren kontra eta larrialdietan erabiltzeko dagoen ekipamendua baliatuz bertako pertsonalak neutralizatzeko modukoa.

- es** conato de emergencia
en beginning of the emergency

278

larrialdi-simulakro (4)

Ustezko larrialdi-egoera bat nahita sortuz egiten den proba. Larrialdietako planean aurrez ikusita dauden ekintza eta neurri guztiak praktikan jartzea da helburua.

- es** simulacro de emergencia
fr exercice de simulation d'urgence
en emergency drill

279

larrialdietako argiak (4)

Ohiko argien elikadurak huts egiten duenean lokalak eta irteera-bideak argitzeko jartzen diren argiak, ebakuazio bat egin edo beste puntu batzuk argitu behar izanez gero erabiltzen direnak.

- es** alumbrado de emergencia; luces de emergencia
fr éclairage de secours
en emergency lighting

280

larrialdietako ate (4)

Eraikin edo ibilgailu batetik larrialdiko egoera batean ateratzeko bereziki diseinatua dagoen atea.

- es** puerta de emergencia; puerta de evacuación
fr porte de secours
en emergency door; emergency exit door

281

larrialdietako batzorde (4)

Larrialdi edo hondamendi baten aurretik, bitartean eta ondoren, larrialdiari aurre egiteko jarduerak koordinatzeaz arduratzen den batzordea.

- es** comité de emergencias
en emergency committee

282

larrialdietako botika-kutxa (4)

- es** botiquín de emergencia
fr trousse de premiers soins; trousse de premiers secours
en first aid kit

283

larrialdietako buru (4)

Sin. larrialdi-buru (3)

- es** jefe de emergencia
fr responsable d'urgence
en chief emergency officer

284

larrialdietako gailu (4)

- es** dispositivo de emergencia
fr dispositif de secours
en emergency device

285

larrialdietako irteera (4)

Sute batean edo beste edozein arriskuren aurrean, eraikin batean dagoen jendea azkar ebakuatzeko bereziki prestatzen den irteera.

- es** salida de emergencia
fr issue de secours; sortie de secours
en emergency exit

286

larrialdietako plan (4)

Larrialdi-egoera bat konpontzeko eta haren ondorioak murrizteko egin behar diren ekintzen definizio sistematiko eta planifikatua.

- es** plan de emergencia
fr plan d'urgence
en emergency plan

287

larrialdietako seinaleak (4)

- es** señalización de emergencia
fr signalisation de secours
en emergency signs

288

larrialdietako talde (4)

Establezimenduaren barruan prebentzioko lanak eta istripuetako jarduketak egiteko bereziki entrenatuta eta antolatuta dauden pertsonen multzoa.

- es** equipo de emergencia
fr équipe d'urgence
en emergency team

289

larrialdiko botoi (4)

Anomaliaren bat gertatzen denean, kaltea eragin dezakeen motorra edo mekanismoa bat-batean eta oso denbora laburrean gerarazteko gailua. Gelditzeko giltzaz edo gailu arruntaz bestelakoa izan behar du.

- es** dispositivo de parada de emergencia; parada de emergencia
fr dispositif d'arrêt d'urgence; arrêt d'urgence
en emergency stop device; kick off device; shut-off device

290

lehen esku-hartzeko talde (4)

- es** equipo de primera intervención
fr équipe de première intervention
en first intervention team; first due company

lehen laguntza

Ik. lehen sorospen

lehen laguntzako talde

Ik. lehen sorospeneko talde

291

lehen sorospen (4)

Sin. lehen laguntza (4)
 Istripua izandako edo min hartutako pertsona bati ematen zaion larrialdiko tratamendua, tratamendu medikoa edo kirurgikoa eman behar diotenak iritsi aurretik horretarako prestatutako pertsonalak ematen diona.

- es** primeros auxilios
fr premiers soins; premiers secours
en first aid

292

lehen sorospeneko talde (4)

Sin. lehen laguntzako talde (4)

Autobabeseko taldea, egiteko hauek dituen: larrialdi batean lesionatutakoei lehen sorospena eman eta, behar izanez gero, ondoren eman beharko zaien tratamendu medikoa kontrolatu eta bideratu.

es equipo de primeros auxilios**fr** équipe de premiers secours**en** first aid team; first alarm company

293

lehen sorospentako gela (4)**es** local de primeros auxilios**fr** local de premiers secours**en** first aid room

294

maskara (4)**es** mascarilla**fr** masque de protection**en** respirator**mediku-azterketa**

Ik. osasun-azterketa

NBE

Ik. norbera babesteko ekipamendu

295

norbera babesteko**ekipamendu (4)**

Sin. NBE (4)

Langile bakoitzak bere laneko segurtasunaren edo osasunaren kontrako arrisku batetik edo batetik baino gehiagotatik babesteko eraman edo eduki behar duen ekipamendua; baita helburu hori bera izan dezakeen beste edozein osagarri edo lagungarri ere.

es equipo de protección individual; EPI**fr** équipement de protection individuelle; EPI**en** personal protective equipment; PPE

296

ohartarazpen-seinale (4)

Arrisku bat dagoela adierazteko seinalea.

es señal de advertencia**fr** signal d'avertissement; signal avertisseur**en** warning signal**ohatila**

Ik. andak

297

oin-babes (4)**es** protector de pies**fr** protège-pied**en** foot guard

298

oinetako antiestatikoak (4)

Elektrizitate estatikorik sortzen ez duten oinetakoak.

es calzado antiestático; calzado antielectrostático**fr** chaussure antistatique**en** anti-static footwear

299

oinetako irristagaitz (4)**es** calzado antideslizante**fr** chaussure antidérapante**en** slip-resistant footwear; skid-proof footwear

300

okupazio-dentsitate (4)

Leku batek azalera-unitate bakoitzeko har dezakeen pertsona-kopurua.

es densidad de ocupación
fr densité d'occupation
en occupant load; occupation density

301

osasan- eta segurtasun-plan (4)

es plan de seguridad y salud
fr plan de sécurité et de santé
en safety and health plan

302

osasan-azterketa (4)

Sin. mediku-azterketa (4)
 Langile baten osasan-egoera aztertzeko egiten diren proba medikoen multzoa.

es reconocimiento médico
fr bilan de santé
en checkup

303

osasanaren zaintza (4)

Langileen osasan-egoera eta osasan-egoera horren faktore erabakigarriak kontrolatzeko erabiltzen den azterketa-prozesu jarraitua. Langileen osasunari, lanean duten arrisku-faktoreekiko esposizioari eta lantokian ezarritako prebentzio eta babeseko neurriei buruzko datuak jaso, analizatu eta interpretatu egiten da. Bi ikuspegiren arabera egiten da: medikuaren azterketarekin lotzen den ikuspegi indibidualaren arabera eta langileen kolektiboarekin lotuta dagoen orokorraren arabera.

es vigilancia de la salud
fr surveillance de la santé
en health surveillance

304

panel-seinale (4)

Forma geometriko bat, koloreak eta ikur bat edo piktograma bat elkarrekin konbinatuz, informazio jakin bat erraz ikusteko moduan emateko prestatzen den seinalea.

es señal en forma de panel
fr panneau
en signboard

305

postura-konfort (4)

Sin. konfort postural (3)
 Langilearen erosotasun-mailarik egokiena lortzeko egiten den ahaleginaren emaitza. Lanpostuaren eta giza gorputzaren arteko interakzio-maila egokia bilatzea da helburu nagusia; horretarako, gizakiaren datu antropometrikorik garrantzitsuenak kontuan hartu eta lanpostua osatzen duten elementuak (eserlekuak, erremintak, distantziak...) horren arabera diseinatzeko dira.

es confort posicional; confort postural
fr confort postural
en postural comfort

306

prebentzio-delegatu (4)

Sin. prebentziorako eskuorde (4)

es delegado de prevención
fr délégué de prévention
en prevention delegate

307

prebentzio-plan (4)

Sin. lan-arriskuen prebentzio-plan (4)
 Gaixotasunak eta istripuak saihesteko eta, inoiz istripuren bat gertatuz gero, kalteak ahalik eta gehien murrizteko hartu behar diren neurri guztien definizio sistematiko eta planifikatua.

es plan de prevención; plan de prevención de riesgos laborales
fr plan de prévention des risques professionnels
en prevention plan of occupational risks

308

prebentzio-zerbitzu (4)

Erakunde batek, zuzenean edo hitzarmen bidez, langileak, ondarea eta eragiketen funtzionamendu normala modu egokian babesteko antolatzen duen baliabide-multzoa, giza baliabideak eta baliabide material nahiz antolamendu mailakoak biltzen dituena.

- es** servicio de prevención
fr service de prévention
en prevention service

309

prebentzio-zerbitzu mankomunatu (4)

- es** servicio de prevención mancomunado
fr service de prévention conjoint
en joint prevention service

prebentzio-zerbitzu propio

Ik. enpresako prebentzio-zerbitzu propio

310

prebentzioaren antolamendu (4)

- es** organización de la actividad preventiva; organización de la prevención
fr organisation de la prévention
en organisation of prevention

311

prebentzioko eskuliburu (4)

- es** manual de prevención
fr manuel de prévention
en prevention handbook; prevention guide

prebentziorako eskuorde

Ik. prebentzio-delegatu

312

presentzia-detektagailu (4)

Pertsona batek makina baten segurtasun-eremuko muga pasatzen duenean aktibatzen den gailua, makina gerarazten edo makinaren mugimendua alderantzikatzen duena eta, hala, istripu-arriskuak ezabatzen edo murrizten dituena.

- es** dispositivo detector de presencia
fr dispositif détecteur de présence
en presence detector; presence detection device

313

salbamendu edo laguntzako seinale (4)

Larrialdietako irteerei, lehen laguntzako zerbitzuei edo salbamenduko gailuei buruzko informazioa ematen duen seinalea.

- es** señal de salvamento o de socorro
fr signal de sauvetage et de secours
en rescue and first-aid sign

314

sarrera mugatuko eremu (4)

- es** zona de acceso restringido
fr zone d'accès limité
en restricted area

315

segurtasun eta osasuneko batzorde (4)

- es** comité de seguridad y salud
fr comité de sécurité et santé
en health and safety committee

316

segurtasun-arau (4)

- es** norma de seguridad
fr norme de sécurité
en safety standard

317

segurtasun-argiak (4)

Larrialdietako argiak, zona bat ebakuatu behar duten edo, zona hustu aurretik, arrisksua izan daitekeen lanen bat bukatu behar duten pertsonen segurtasuna bermatzeko jartzen direnak.

es alumbrado de seguridad**fr** éclairage de sécurité**en** safety lighting

318

segurtasun-betaurrekoak (4)**es** gafas de seguridad**fr** lunettes de sécurité**en** safety glasses; safety goggles

319

segurtasun-eremu (4)**es** zona de seguridad**fr** zone de sécurité**en** safety area

320

segurtasun-ikuskapen (4)**es** inspección de seguridad**fr** vérification de sécurité;
inspection de sécurité**en** safety inspection

321

segurtasun-kasko (4)

Sin. babes-kasko (3)

Lanean burua kolpeen kontra babesteko kasko zurruna. Norbera babesteko ekipamenduaren elementu bat da.

es casco de seguridad; casco de protección**fr** casque de sécurité; casque de protection**en** safety helmet; protective helmet

322

segurtasun-oinetako (4)

Oinak laneko istripuetatik babesteko erabiltzen den oinetakoa. Norbera babesteko ekipamenduaren elementu bat da.

es calzado de seguridad**fr** chaussure de sécurité; chaussure de protection**en** safety footwear; protective footwear

323

segurtasun-tarte (4)

Presentzia-detektagailuaren eta arrisku-mugaren bitarteko gutxieneko tarte. Tarte hori gordeta, makina edo elementu arrisksua gelditu edo arrisku-eremutik kanpo geratuko da pertsona arrisku-muga horretara iritsi baino lehen.

es distancia de seguridad**fr** distance de sécurité**en** safe distance; safety distance

324

segurtasun-uhal (4)**es** cinturón de seguridad**fr** ceinture de travail**en** body belt; safety belt

325

segurtasuneko babesgailu (4)

Makinetan pertsonak babesteko jartzen den gailua, babes-estalkiaz bestelakoa; arriskua ezabatzeko, arriskua bera gauzatzera iritsi aurretik.

es dispositivo de protección;

dispositivo de seguridad

fr dispositif de sécurité; dispositif de protection**en** safety device

326

segurtasuneko datu-fitxa (4)

Produktu kimikoen fabrikatzaileek edo hornitzaileek nahitaez beteta eman behar duten inprimakia. Lan-segurtasuneko elementu garrantzitsua da, produktu hori ahalik eta arriskurik txikienarekin nola erabili behar den jakiteko informazioa ematen baitie langileei eta larrialdietako taldeei. Informazio horretan jaso behar dira: ezaugarri fisikoak (urtze-tenperatura, irakite-tenperatura, sutze-puntua), toxikotasuna, osasunaren gain duen eragina, larrialdietako neurriak, errektibotasuna, biltegiatze-gomendioak, ezabatzeko arauak, babes-baldintzak eta nahigabe ukituz gero hartu behar diren neurriak.

- es** ficha de datos de seguridad
fr fiche de données de sécurité;
 fiche technique santé-sécurité
en material safety data sheet;
 chemical safety data sheet

327

seinale akustiko (4)

Sin. soinu-seinale (3)

Seinale hostun kodetua, gailu egoki baten bidez igorria eta gizakiaren ahotsik edo ahots sintetikorik gabe egindakoa.

- es** señal acústica
fr signal acoustique
en acoustic signal; sound signal

328

seinalizazio-jantzi (4)

- es** ropa de señalización
fr vêtement de signalisation
en warning clothing

soinu-seinale

Ik. seinale akustiko

329

sonometro (4)

- es** sonómetro
fr sonomètre
en sound-level meter

330

sorosle (4)

- es** socorrista
fr secouriste
en first aid worker

331

su-detekttagailu (4)

Sutea piztu bezain azkar sua detektatu eta abisua ematen duen tresna. Sugarra, kea, errekontza-gasak edo tenperatura-igoera detektatzeko gaitasuna izaten du.

- es** detector de fuego; detector de incendios
fr détecteur d'incendie
en fire detector

su-ebakitzaile

Ik. suaren kontrako elementu

332

su-gerarazle (4)

Suarekiko portaerari dagokionez hiru ezaugarri hauek dituen eraikuntzako elementua: erresistentzia mekanikoa, hau da, egonkortasuna edo sostengu-ahalmena izatea; estankotasuna, edo sugarra eta gas beroak pasatzen ez uzteko gaitasuna; eta surik ez dagoen aurpegiaren aldetik gas sukoiarik ateratzen ez uztea.

- es** parallamas; elemento parallamas
fr pare-flammes
en flame arrester; flamestop

333

su-hesi (4)

Sin. suaren kontrako hesi (3)

Erretzen ez den horma eta, ez behar bat gertatzen denean, suari une batez behintzat zabaltzen ez

uzteko eta eraikin bateko lokalak isolatzeko bereziki diseinatua dagoena. Horretarako, noski, su-ebakitzaileen lau baldintzak bete behar ditu: erresistentzia mekanikoa, estankotasuna, erresistentzia termikoa eta surik ez dagoen aldetik gas sukoirik ez ateratzen uztea.

es muro cortafuegos; muro resistente al fuego

fr mur coupe-feu

en firewall

334

suaren kontrako ate (4)

Denbora jakin batean behintzat suaren kontrako erresistentziaren lau baldintzak betetzen dituen atea: egonkortasuna, estankotasuna, gas sukoirik ez ateratzea eta isolamendu termikoa izatea.

es puerta resistente al fuego; puerta cortafuego

fr porte coupe-feu

en fire door; fire-resistive door

335

suaren kontrako elementu (4)

Sin. su-ebakitzaile (4)

Suarekiko portaerari dagokionez lau ezaugarri hauek dituen eraikuntzako elementua: erresistentzia mekanikoa, hau da, egonkortasuna edo sostengu-ahalmena izatea; estankotasuna, hots, sugarra eta gas beroak pasatzen ez uzteko gaitasuna; surik ez dagoen aurpegiaren aldetik gas sukoirik ateratzen ez uztea; eta erresistentzia termikoa edo beroa transmititzen ez uzteko gaitasuna.

es elemento resistente al fuego; elemento cortafuegos; cortafuegos

fr résistant au feu

en fire resistant

336

suaren kontrako erresistentzia (4)
Eraikuntzako elementu, osagai, ekipamendu edo egitura batek denbora-epe jakin batean egonkortasuna, estankotasuna eta isolamendu termikoa gordetzeko eta gas sukoirik ez botatzeko duen gaitasuna.

es resistencia al fuego

fr résistance au feu

en fire resistance

suaren kontrako hesi

Ik. su-hesi

337

substantzia arriskutsuen etiketatze (4)

Jendeak erabili behar dituen substantzia arriskutsuei arauak agintzen duen etiketa jartzea. Substantzia arriskutsuen ontziak garbi eta erraz irakurtzeko eta nekez ezabatzeko moduan etiketatu behar dira, Estatuako hizkuntza ofizialean.

es etiquetado de sustancias peligrosas

fr étiquetage des substances dangereuses

en labelling of dangerous substances

338

sugar-atzeratzaile (4)

Suaren kontrako produktua; material batek su hartzeko eta sua zabaltzeko duen indarra moteltzeko erabiltzen da.

es retardador de llama; revestimiento ignifugante

fr retardateur de flamme

en flame retardant

SUH

Ik. suteetako ur-hargune hornitu

339

sute-aho (4)

Sin. kutxatila-hidrante (3)

- es** hidrante de arqueta; boca de incendios
fr bouche d'incendie; bouche d'eau
en flush hydrant

sute-aho hornitu

Ik. suteetako ur-hargune hornitu

340

sute-detekzio eta -alarmako instalazio (4)

- es** instalación de detección y alarma de incendios; sistema de detección de incendios
fr installation de détection d'incendie
en fire detection system

341

sute-itzalketako plan (4)

- es** plan de extinción
fr plan d'extinction
en fire suppression plan

342

sute-sektore (4)

- es** sector de incendio
fr secteur d'incendie
en fire sector

343

sute-zutabe (4)

Sin. zutabe-hidrante (3)

- es** hidrante de columna; columna hidrante
fr poteau d'incendie; borne d'incendie
en fire hydrant; fire plug

344

sutearen aurkako babes (4)

- es** protección contra incendios
fr protection contre l'incendie
en fire protection

345

sutearen aurkako egitura-babes (4)

Eraikuntza baten egiturari dagokionez, sua denerako hartzen diren babesneurrien multzoa. Neurriren helburua da egiturak sutearen ondorioz bere sostengu-ahalmena ez galtzea eta hala sostengatzailea nola sostengatua ez geratzea kolapso partziala edo erabatekoa izateko arriskuan.

- es** protección estructural contra incendios; protección de estructuras
fr protection des structures; protection des structures contre l'incendie
en fire structure protection; structure protection

346

suteen kontrako babes-instalazio (4)

- es** instalación de protección contra incendios
fr installation de protection contre l'incendie
en fire protection installation

347

suteetako eskailera (4)

Suteetako irteera gisa erabiltzeko diseinatua dagoen eskailera, bereziki babestua.

- es** escalera de incendios
fr escalier d'incendie
en fire stair

348

suteetako konpartimentazio (4)

Suaren kontra erresistenteak diren elementuen bidez espazioak bananduz, sua mugatzeko eta zabaltzen ez uzteko egiten diren ekintzen multzoa.

- es** compartimentación en sectores de incendio
fr compartimentation au feu
en fire compartmentation

349

suteetako ur-hargune hornitu (4)

Sin. SUH (4) ; sute-aho hornitu (3)
 Normalean eraikinen barruan izaten den suaren kontrako ekipamendu-elementua: kaxa batean itxita egoten da, eta irekitze azkarreko balbula bat, ur-hornidurako sistema bati iraunkorki konektatutako mahuka bat eta lantza bat izaten ditu.

es boca de incendio equipada; BIE

fr robinet d'incendie armé; RIA

en fire hose cabinet

350

suteetako ur-sare (4)

Ura suteen kontrako babes-sistemaren konexio-puntuetaraino eramateko hodi, balbula eta gehigarrien multzoa. Kasu eta instalazio jakin batzuetan beharrezkoa izaten da suaren kontrako ur-instalazio espezifikoa izatea.

es red general de incendios

fr réseau d'incendie; réseau d'eau d'incendie

en fire system; fire protection system

351

tximistorratz (4)

es pararrayos

fr paratonnerre

en lightning rod; lightning conductor

352

urezko itzalgailu (4)

es extintor de agua

fr extincteur à eau

en water type extinguisher

353

zango-babes (4)

es protector de piernas

fr jambière

en legging; shin guard; gaiter

354

zutabe heze (4)

Sin. zutabe hezeko hidrante (3)
 Solairu bat baino gehiagoko etxe-blokeetan jartzen den suteen kontrako hodi bertikala, ur-sarera konektatua. Presio handiko ura izaten du, eta beti egoten da urez elikatua; sua sortuz gero, solairuetan ura hartzeko erabiltzen dute suhiltzaileek.

es hidrante de columna húmeda

fr colonne humide; colonne en charge

en wet standpipe

zutabe hezeko hidrante

Ik. zutabe heze

355

zutabe lehor (4)

Sin. zutabe lehorreko hidrante (3)
 Solairu bat baino gehiagoko etxe-blokeetan jartzen den suteen kontrako hodi bertikala, urez kargatu gabea. Horman sartutako eta eraikuntza guztian zabalduetako hodi bat izaten da; hodiaren mutur bat babestu nahi den lokalean egoten da, eta beste muturra eraikuntzaren kanpoko aldean, plakatxo batekin identifikatuta. Sua sortuz gero, beren autoponpak kanpoko muturrean konektatu eta ura eraikuntzako solairuetara eramateko erabiltzen dute suhiltzaileek.

es hidrante de columna seca; columna seca contra incendios

fr colonne sèche

en dry standpipe

zutabe lehorreko hidrante

Ik. zutabe lehor

zutabe-hidrante

Ik. sute-zutabe

EUSKARAZKO AURKIBIDEA



A

A klaseko su, 1
 abdomen-babes, 159
 agente biologiko, 2
 agente itzaltzaile, 160
 aginteari atxikitako babesgarri, 161
 aireztapen, 162
 alarma, 163
 alarma eta ebakuazioko talde, 164
 alarma-aparatu, 165
 alarma-seinale, 166
 alarma-sistema, 167
 aldi baterako ezintasun, 89
 alterazio fisiko, 90
 alterazio muskular, 91
 alterazio psikosomatiko, 92
 altuerako eroriko, 93
 andak, 168
 argi-seinale, 169
 argibide-seinale, 170
 arnas babesgailu, 171
 arnasaren bidezko kutsadura, 94
 arnes, 172
 arrisku arin, 3
 arrisku erlazionatu, 4
 arrisku larri eta berehalako, 5
 arrisku neurritsu, 6
 arrisku onargarri, 7
 arrisku onartezin, 8
 arrisku-identifikazio, 173
 arrisku-probabilitate, 9
 arrisku-zenbatespen, 174
 arriskua detektatze, 175
 arriskuaren analisi, 176
 arriskuaren intentsitate, 10
 arriskuaren lokalizazio, 177
 ate su-gerarazle, 178
 atsedengela, 179
 aurpegi-babes, 180

aurpegiko pantaila, 181
 autosutze, 11
 autosutze-tenperatura, 12
 azalaren bidezko kutsadura, 95
 azal-babes, 182

B

B klaseko su, 13
 babes kolektibo, 183
 babes pertsonal, 195
 babes-baranda, 184
 babes-eskularru, 185
 babes-estalki, 191
 babes-jaka, 186
 babes-jantzi, 187
 babes-kasko, 321
 babes-mantal, 188
 babes-sare, 189
 babeseko lur-konexio, 190
 babesgarri, 191
 babesgarri doigarri, 192
 babesgarri finko, 193
 baja gabeko istripu, 96
 baliaezintasun handi, 97
 baliaezintasunik gabeko lesio
 iraunkor, 98
 balizaje, 194
 banakako babes, 195
 barruko larrialdietako plan, 196
 begi-babes, 197
 begien bidezko kutsadura, 99
 belarri-babes, 198
 belaun-babes, 199
 bereizkerian oinarritutako jazarpen, 100
 bereizkeriazko jazarpen, 100
 bero-detekttagailu, 200
 beso-babes, 201

betebehar-seinale, 202
 bi eskuko aginte, 203
 bibrazio, 14
 bibrazioen aurkako gerriko, 204
 bibrazioen kontrako isolamendu, 205
 bigarren esku-hartzeko talde, 206
 biltoki, 221
 buru-babes, 207

C

C klaseko su, 15

D

D klaseko su, 16
 debekupeko eremu, 209
 debeku-seinale, 208
 deflagrazio, 17
 deskarga elektriko, 101
 disjuntore, 210
 dosimetro, 211

E

E klaseko su, 18
 ebaki, 102
 ebakuazio, 212
 ebakuazio-agindu, 213
 ebakuazio-argiak, 214
 ebakuazio-bide, 215

ebakuazio-denbora, 216
 ebakuazio-plan, 217
 ebakuazioko bide, 218
 egonaldi mugatuko eremu, 219
 elektrizitate estatikoaren ezabagailu, 220
 elkartze-puntu, 221
 enpresako mediku, 222
 enpresako prebentzio-zerbitzu
 propio, 223
 enpresaz kanpoko prebentzio-
 zerbitzu, 224
 eremu arriskutsu, 225
 ergonomia, 226
 erradiazio ez-ionizatzaile, 103
 erradiazio ionizatzaile, 104
 erradiazio termiko, 105
 erradiazioekiko esposizio, 19
 erradiazioen eraginpean jartze, 19
 erre, 106
 erredura, 106
 erregai, 20
 erregarri, 21
 errekontza, 22
 errekontza-puntu, 23
 erreminta, 24
 erremintak erortze, 107
 esku arteko objektuak erortze, 108
 esku-babes, 227
 esku-besoen bidezko bibrazio, 25
 esku-hartze buru, 228
 eskuzko itzalgailu, 229
 eskuzorro, 230
 esposizio kimiko, 58
 esposizio profesional, 26
 esposizio profesionalaren muga-
 balio, 231
 esposizio-denbora, 69
 esposiziopeko langile, 109
 etengailu diferentzial, 232
 ezintasun iragankor, 89
 ezintasun iraunkor, 110

ezintasun iraunkor absolutu, 111
ezintasun iraunkor oso, 112
ezintasun iraunkor oso eta
kalifikatu, 113
ezintasun iraunkor partzial, 114

higiene operatibo, 242
higiene teoriko, 243
hondakin arriskutsu, 31
hondoratzegatiko eroriko, 149
hutsegite-zuhaitz, 244

F

fitxa toxikologiko, 233
frenatzeko eta gelditzeko gailu, 234

G

gai arriskutsu, 67
gai arriskutsuen garraio, 27
gaixotasun profesional, 137
gas sukoi, 28
gas toxiko, 29
gehieneko esposizio onargarri, 235
gizaki hilaren gailu, 236
gorputz osoaren bibrazio, 30
gurpil gaineko itzalgailu, 252

H

hauts itzaltzaile, 237
hauts kimikozko itzalgailu, 238
heriotza-istripu, 124
hidrante, 239
higiene analitiko, 240
higiene industrial, 241

I

ibilgailuak harrapatze, 115
ikusmen-alterazio, 116
in itinere istripu, 117
industria-higiene, 241
inertzia-mugimendua gerarazteko
gailu, 245
inertzia-mugimenduaren gailu, 245
ingurumen-kutsatzaile, 32
instalazio elektriko, 33
intzidente, 118
iraulitako makinak azpian
harrapatze, 119
iraulketa, 120
irensketaren bidezko kutsadura, 121
isolamendu akustiko, 246
isolamendu elektriko, 247
isolamendu termiko, 248
istripu arin, 122
istripu bajadun, 123
istripu hilgarri, 124
istripu larri, 125
istripu lesiodun, 126
istripu nagusi, 127
istripu-tasa, 249
istripuaren kausa, 250
istripuen ikerketa, 251
itzalgailu mugigarri, 252
itzalgailuaren eraginkortasun, 253
izuaren kontrako barra, 254
izu-barra, 254

J

jazarpen moral, 128

K

kanpoko larrialdietako plan, 255
 kantzerigeno, 34
 karbono dioxidozko itzalgailu, 256
 kartzinogeno, 34
 kate-erreakzio, 35
 katigatze-babesgarri, 161
 ke, 36
 ke-detektagailu, 257
 kearen kontrako maskara, 258
 kolpe, 129
 konfort akustiko, 259
 konfort postural, 305
 konfort termiko, 260
 kontaktu elektriko, 130
 kontaktu elektrikoarekiko esposizio, 37
 kontaktu elektrikoaren eraginpean
 jartze, 37
 kontaktu elektrikoaren kontrako
 babes-sistema, 261
 kontaktu termiko, 131
 kontrolpeko eremu, 263
 kontrol-zerrenda, 262
 korrante-etengailu automatiko, 264
 kutsadura parenteral, 132
 kutsatzaile biologiko, 38
 kutsatzaile fisiko, 39
 kutsatzaile kimiko, 40
 kutxatila-hidrante, 339

L

lan errepikakor, 41
 lan-arriskuen prebentzio, 265
 lan-arriskuen prebentzio-plan, 307
 lan-baldintzak, 42
 lan-eremu, 43
 lan-eremuaren argiztapen, 266
 lan-eremuko higiene, 267
 lan-eritmo, 44
 lan-istripu, 138
 lan-karga fisiko, 45
 lan-karga mental, 46
 lan-osasun, 268
 lan-postura, 48
 lanak eragindako kalte, 133
 laneko arrisku, 47
 laneko arriskuen ebaluazio, 269
 laneko asegabetasun, 134
 laneko baja, 135
 laneko ekipamendu, 270
 laneko estres, 136
 laneko gaixotasun, 137
 laneko gorputz-jarrera, 48
 laneko istripu, 138
 laneko istripu eta laneko gaixotasun
 profesionalen mutua, 271
 laneko jazarpen, 139
 laneko jazarpen psikologiko, 139
 laneko neke, 140
 laneko segurtasun, 272
 lanerako ezintasun, 141
 langarretagailu automatiko, 273
 langarretagailu automatikoen
 instalazio, 274
 lantoki, 275
 larrialdi, 276
 larrialdi-buru, 283
 larrialdi-hasiera, 277
 larrialdi-simulakro, 278

larrialdietako argiak, 279
larrialdietako ate, 280
larrialdietako batzorde, 281
larrialdietako botika-kutxa, 282
larrialdietako buru, 283
larrialdietako gailu, 284
larrialdietako irteera, 285
larrialdietako plan, 286
larrialdietako seinaleak, 287
larrialdietako talde, 288
larrialdiko botoi, 289
larruazalaren alterazio, 142
lehen esku-hartzeko talde, 290
lehen laguntza, 291
lehen laguntzako talde, 292
lehen sorospen, 291
lehen sorospeneko talde, 292
lehen sorospenetako gela, 293
leherketa, 49
lesio, 143
likido sukoi, 50

M

maila batetik besterako eroriko, 93
maila bereko eroriko, 144
makineria, 51
maskara, 294
material erregaitz, 52
material garraiatua erortze, 145
material suhargaitz, 53
material sukoi, 54
mediku-azterketa, 302
misioko istripu, 146
mobbing, 139

N

NBE, 295
neke profesionalaren sindrome, 147
norbera babesteko ekipamendu, 295

O

objektuak erortze, 148
objektuak erortze eta proiektatze, 55
ohartarazpen-seinale, 296
ohatila, 168
oinarriaren huts egiteko eroriko, 149
oin-babes, 297
oinetako antiestatikoak, 298
oinetako irristagaitz, 299
okupazio-dentsitate, 300
osasun- eta segurtasun-plan, 301
osasunaren zaintza, 303
osasun-azterketa, 302

P

panel-seinale, 304
petrolio-gas likidotu, 56
PGL, 56
postura-konfort, 305
prebentzioaren antolamendu, 310
prebentzio-delegatu, 306
prebentzio-plan, 307
prebentzio-zerbitzu, 308
prebentzio-zerbitzu mankomunatu, 309
prebentzio-zerbitzu propio, 223
presentzia-detektagailu, 312

prebentzioko eskuliburu, 311
 prebentziorako eskuorde, 306
 produktu kimiko, 57
 produktu kimikoekiko esposizio, 58
 produktu kimikoen biltegitratze, 59

S

